



EUSKADIKO TXIKIZKAKO MERKATARITZA-ESTABLEZIMENDUAK MODERNIZATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMAREN INGURUKO OHIKO-GALDERAK

1.- Nola eta non aurkeztu dezaket laguntzaren eskaera?

Bitarteko elektronikoen bidez soilik aurkeztu ahal izango da eta telematikoki; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen bidez (<https://www.euskadi.eus/servicios/1010108>). Eskaerak aurkezteko beharrezkoa izango da identifikazio elektronikoa erabiltzea (<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>).

2.- Nori zuzenduta daude?

Beregaineko langileei edo autonomoei, ondasun-erkidegoei, sozietate zibilei, mikro-enpresei eta enpresa txikiei; egoitza soziala eta fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan badute; jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafe hauen barruan sartzen bada:

	Txikizkako merkataritza
641	Fruituen, barazkien, ortuarien eta tuberkuluaren txikizkako merkataritza.
642	Honakoen txikizkako merkataritza: haragia eta hondakinak, haragi-gai eta haragiki landuak, arrautzak, hegaztiak, abeletzeko untxiak, ehizakiak, eta horien ekoizkin eratorriak.
643	Arrainen eta arrantzako eta akuikulturako bestelako ekoizkinen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.
644	Ogi, gozoki, konfite eta antzekoen, eta esne eta esnekien txikizkako merkataritza
645	Mota guztietako ardoen eta edarien txikizkako merkataritza
646	Tabako-laboreen eta erretzaileentzako gauzen txikizkako merkataritza.
647.1	Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, saltzailearen establezimenduetan.
647.2	Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan, saltzeko gelak 120 metro koadro baino gutxiagoko eremua duenean
647.3	Supermerkatuetan egiten den mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan; saltzeko gelak 120 eta 399 metro koadro bitarte dituen deritze supermerkatu.
651	Ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien txikizkako merkataritza.
652.2	Drogeriako, lurringintzako eta kosmetikako produktuen, garbiketako gaien, pinturen, bernizen, disolbatzaileen, paperen eta dekoraziorako beste ekoizkin batzuen eta kimikako ekoizkinen txikizkako merkataritza.
652.3	Lurringintzako eta kosmetikako ekoizkinen eta norbere higienarako eta garbiketarako gaien txikizkako merkataritza.
652.4	Belar-dendetako landareen eta belarren txikizkako merkataritza
653	Etxeko ekipamenduen eta eraikuntzarako gaien txikizkako merkataritza.
654.2	Lurreko ibilgailuentzako osagarrien eta ordezkio piezen txikizkako merkataritza
654.5	Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegokoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).
654.6	Mota guztietako ibilgailuetarako gurrpil-azalen, banden edo aire-ganberen txikizkako merkataritza.
656	Altzarien, jantzien, etxean erabiltzeko jantzi eta tresna arrunten eta antzeko ondasun erabilien txikizkako merkataritza.
657	Musika-tresnen eta haien osagarrien txikizkako merkataritza
659	Bestelako txikizkako merkataritza
662	Comercio mixto o integrado al por menor
	Hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako beste zerbitzu batzuk
691.1	Etxeko tresna elektrikoaren konponketa.

691.9	Beste kontsumo-ondasun batzuk konpontzea, b.i.s.g.
971	Garbitegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.
972	Ile-apaindegiak eta apaindegiak.
973.1	Fotografia-zerbitzuak
973.3	Makina-fotokopiagailuen bitartez agiriak kopiaitzeko zerbitzuak.
975	Markogintza-zerbitzuak.

3.- Non ikus dezaket zein den nire EJZ taldea?

Egiten duzun "Jarduera ekonomikoa identifikatzeko" kodea da.

4.- 3. oinarriko 5. puntuan jasotakoez bestelako ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafe batean alta emanda banago, laguntza jasotzeko eskubidea dut?

Ez, laguntzaren onuradun izateko, Aginduan sartutako EJZetako batean inskribatuta egon behar da.

5. - Zer betekizun gehigarri bete behar ditut EJZ epigrafean?

- Enpresa-jarduerak egoitza soziala eta fiskala EAEn izan beharko du, eta bertan egon beharko du laguntzaren xede den merkataritza- edo zerbitzu-establezimendua.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan agindu honen 3. oinarriko 5. paragrafoan zerrendatutako ekonomia-jardueren gaineko zergaren talde eta/edo epigraferen batean sartutako jarduera bati uztea eta alta emanda egotea.
- Merkataritza- edo zerbitzu-jarduera bera egitea, ekonomia-jardueren gaineko zergan benetako alta emanda, eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenago gutxienez.
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan benetako alta emateko (gutxienez urtebete), berdin onartuko da pertsona eta erakunde eskatzaileek merkataritza- edo zerbitzu-jardueran alta emanda daramaten denbora, edo diru-laguntzaren xede den establezimenduan alta emanda daramaten denbora.
Azken urtean negozioaren titulartasuna aldatu bada, enpresaren antzinasuna egiaztatu beharko da aurreko titularraren EJZren ziurtagiriaren bidez.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- Diru-laguntzen arloko itzulketa-betebeharrak ordainduta izatea.
- Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik ez izatea, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gertatutakoak barne.
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. zenbakietan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluan aurreikusitako gainerako egoeretan ez egotea, diru-laguntzen onuradun izateko.

Ondasun-erkidegoen eta sozietate zibilen kasuan, bertan parte hartzen duten pertsona guztiak, fisiko zein juridiko pribatuak, pertsona onuraduntzat hartuko dira, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari bat izendatu beharko da, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituena.

Ondasun-erkidego edo sozietate zibil batean parte hartzen duen kide bakoitzak deialdiaren betekizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko, beharrezkoa da

kide bakoitzaren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztea, bai eta ondasun-erkidegoarenak edo sozietate zibilarenak ere.

6.- Laguntza ordezkari bidez eskatuz gero, zein dokumentazio osagarri aurkeztu behar dut?

Eskabidearekin batera "Borondatezko Ordezkaritza Egilestea"-ren inprimakia aurkeztu behar da (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>)

Nortasun juridikorik gabeko erakundeen kasuan (ondasun-erkidegoa edo sozietate zibilak) beharrezkoa izango da ordezkari emateko inprimaki normalizatuaz gain, eratze-eskriurak ere eranstea.

7.- Gutxienez noiz arte bete behar dira laguntzaren onuradun izateko eskatzen diren baldintzak?

Aktiboak saltokiaren aktiboan jarraitu behar du fakturaren datatik, gutxienez:

- Bi urte, 1. eta 2. ildoetako inbertsioetarako.
- Urtebete, 3. ildoko inbertsioetarako.

Epe horretan ezin izango zaizkie hirugarren pertsona fisiko edo juridikoei laga.

8.- Zenbat eskaera aurkez ditzaket?

Eskabideak merkataritza-establezimenduaren arabera aurkeztuko dira.

Merkataritza-establezimendu bat baino gehiago izanez gero, eskabide bat establezimendu bakoitzeko.

9.- Zein da laguntza eskatzeko epea?

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, argitaratzen den egunaren biharamunetik 2021eko ekainaren 28ra arte.

10.- Eskaeraz gain, beste zein dokumentu aurkeztu behar dut?

Eskabidearen inprimakia osorik beteta egon behar du, eta, eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

1. Pertsona fisikoa bada, enpresaren titularraren NANA edo Turismo eta Merkataritza Sailari baimena ematea datu hori egiazta dezan interoperabilitate-zerbitzuaren bitartez.
2. Enpresa pertsona juridikoa bada, enpresaren IFZ.
3. Enpresaren eratze-eskriurak eta gerora egindako aldaketak.
4. Ordezkaritza emanez gero, pertsona edo erakunde eskatzailearen lege-ordezkaritzaren ahalordea.

Baldin eta ez badute ordezkariarik eman eta ez badute Ordezkarien Erregistro Elektronikoa erabili nahi, ordezkari emateko inprimaki arautua erantsi beharra egongo da (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>), eta, horrekin batera, ordezkatuaren egiaztariak (NANA, pertsona fisikoei dagokienez, eta ahalorde-

eskriturak, pertsona juridikoen kasuan).

5. Honako egiaztagiri hauetakoren bat badu eta diruz lagun daitekeen ehuneko handitu ahal badu:

- a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan izandako alta eta baja egoeren ziurtagiri historikoa, edo, hala badagokio, dirulaguntza jasoko duen establezimenduarena.
- b) Enpresak lortutako kalitate- edo bikaintasun-ziurtagiriak, halakorik izanez gero.
- c) Titulazio arautuaren ziurtagiria, Lanbide Heziketako erdi mailako zein goi-mailakoa edo Lanbidek emandako profesionaltasun-ziurtagiriren bat, hala badagokio.
- d) Alta emanda dauden langileen inguruko txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, enpresarekin lan-lotura dutela egiaztatzeko.
- e) Berdintasun-plana edo Lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko plana dagoela egiaztatzea.
- f) Bai Euskarari edo Bikain ziurtagiriak egiaztatzea, merkataritza-establezimenduan arreta euskaraz emateari dagokionez.
- g) Merkataritza-establezimendua kokatuta dagoen lurralde historikoko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberaren egiaztagiria, baldin eta 8.3.h) oinarrian aipatzen den enpresa-transmisioko programara atxiki bada.
- h) Behar izanez gero, merkatarari-elkarteren bateko kide izatearen jatorrizko ziurtagiria.

6. Etxetresna elektrikoek eta klimatizazio-ekipamenduek energia-efizientzia altuko ziurtagiria dituztela egiaztatzeko dokumentuak (A+++, A++ eta A+ ziurtagiri energetikoa, edo parekoak).

7. Eskabidearen xede den inbertsio-proiektuan sartutako aktiboen fakturak eta ordainagiriak.

8. Administrazioak laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko, erakunde eskatzaileak Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan alta eman beharko du edo bere banku-datuak aldatu beharko ditu. Horretarako, dagokion aukeraren arabera, aurrez aurre edo telematikoki egin ahal izango da, hemen zehazten diren argibideei jarraituz: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-tramite/eu/>.

Sozietate zibilen eta ondasun-erkidegoen kasuan, beharrezkoa da banku-erakundeak emandako titulartasun-ziurtagiria aurkeztea, non parte-hartzaile guztiak baimendutzat agertu beharko baitira.

9. Enpresa batek hainbat merkataritza-establezimendutan egiten baditu inbertsioak, eskabidea egiteko aurkeztu behar den dokumentazio komuna lehenengo eskabidean bakarrik aurkeztu beharko da, ez eskabide guztietan.

11.- Zer dirulaguntzen da?

Diruz lagunduko dira enpresaren aktiboan lehen aldiz sartzen diren eta fisikoki establezimenduan dauden aktiboak diren inbertsioak.

Hainbat diru-laguntza ildo:

1. Ildoa. Saltegiaren irudia berritzea:

Honako inbertsio hauek lagunduko dira diruz:

- a) Saltegiaren barnealdea eta/edo kanpoaldea egokitzeko, berritzeko edo handitzeko obrak eta instalazioak, saltegia atontzeari, merkataritza azalera antolatzeari edo haren irudia hobetzeari eragiten diotenak.
- b) Energia aurrezteko edo energiaren erabilera eraginkorra egiteko neurriak ezartzeko obrak eta instalazioak.
- c) Arkitektura-oztopoak kentzeko egindako berrikuntzak.
- d) Merkataritza-establezimenduaren kanpoalderako errotuluak erosi eta instalatzea, merkataritza-izena, marka, logotipoa edo antzekoak identifikatzeko, eta toldoak erosi eta instalatzea.
- e) Jarduera nagusia gauzatzearekin lotutako altzariak eta makinak erostea, instalatzea eta muntatzea.
- f) Produktuak erakusgai jartzeko ekipamendua eta altzariak erostea.
- g) Produktuak biltegitratzeko altzariak (hotz-ganberak barne).
Hotz-ganberak, baldin eta energia-eraginkortasun handiko etiketa energetikoa badute (A+++ , A++ eta A+ , edo baliokideak).
- h) Alarmak eta segurtasun-sistemak. Dirulaguntza jaso dezakeen inbertsioaren gehieneko zenbatekoa 6.000 eurokoa izango da, BEZik gabe.
- i) Lokala girotzeko ekipoak, baldin eta energia-eraginkortasun handiko etiketa energetikoa badute (A+++ , A++ eta A+ , edo baliokideak).
- j) Merkataritza-jarduerarekin zuzeneko lotura duten enpresa txiki eta ertainek merkataritza-gune itxi batean partekatutako espazio eta elementu komunak berrantolatzeko eta modernizatzeko inbertsioak.

Onartutako gutxieneko inbertsioa BEZik gabe: 4.000 euro.

2. Ildoa. Teknologia berriak eta berrikuntza txertatzea

Honako inbertsio hauek lagunduko dira diruz:

- a) Saltegiaren kudeaketa hobetzeko ekipo informatikoak, informatika-aplikazioak eta kudeaketa-softwarea, betiere merkaturatze-prozesuetan integratuta badaude edo enpresa-kudeaketarako badira. Kasu horretan, funtzio nagusien deskribapena eta garatutako jarduerarekin duten lotura aurkeztu behar dira.

Ekipamendu informatikoetan eta periferikoetan inbertitzea mugatu egingo da, eta, merkataritza-establezimendu bakoitzeko, mota bakoitzeko gehienez bat lagunduko da diruz.
- b) Saltegiaren (bezeroak, hornitzaileak, etab.) merkaturatze (web-orria garatzea, online bidezko salmenta –ecommerce, scommerce, mcommerce edo gisakoak) edo kudeaketa abian jartzeko edo hobetzeko sistemak sortzea, garatzea edo ezartzea.
- c) Saltegiko terminalak eta produktuen kodifikazio eta irakurketa optikoko sistemak.
- d) Salgaien baskula elektronikoak.
- e) Kutxa erregistratzaileak.
- f) TICKETBai (TBAI) sistemarako fakturazio-softwarea ezartzea.

Onartutako gutxieneko inbertsioa BEZik gabe: 900 euro.

3. lerroa: baldintza higieniko-sanitarioak

Honako inbertsio hauek lagunduko dira diruz:

Lurruneztagailuak, airea berritzeko eta arazteko sistemak, termometro digitala, gorputzeko tenperatura neurtzeko kamerak, esterilizagailuak, deskontaminatzeko alfonbrak, eta antzeko ezaugarriak dituen ekipamendua.

Onartutako gutxieneko inbertsioa BEZik gabe: 900 euro.

12.- Zein da laguntzen zenbatekoa?

Inbertsioek onartutako inbertsioaren % 25eko diru-laguntza jasoko dute. Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 9.000 euro da establezimendu eta urte bakoitzeko.

13.- Handitu al dezaket diruz lagun daitekeen ehunekoa?

Bai, gehienez ere % 40, honako egoera hauetakoren bat egiaztatzen baduzu:

- a) UNE 175001 ziurtagiria, bitarteko bikaintasun-ziurtagiriak edo azken 5 urteetan Merkabiden parte hartu izanaren ziurtagiria: 2 puntu.
- b) Inbertsioa 6. oinarriko 2. lerroan sartuta dago: 5 puntu.
- c) Establezimenduaren titularrak edo, gutxienez, laguntzaren xede den saltokiko langile batek Lanbide Heziketako erdi-mailako edo goi-mailako titulu arauturen bat edo Lanbidek emandako profesionaltasun-ziurtagiriren bat duela, baldin eta merkataritza-sektorearekin zuzeneko lotura badute: 2 puntu.
- d) Enpleguaren egonkortasun-irizpidea, saltokiko plantillaren erdiak gutxienez kontratu mugagabea duela egiaztatzen denean: 3 puntu.
- e) Enplegu-berdintasunaren irizpidea, saltokiko plantillaren erdia gutxienez emakumea dela egiaztatzen denean: 2 puntu.
- f) Berdintasun Plana edo lana eta familia bateragarri egiteko Plana izatea, edo Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Erakunde Laguntzailearen aitortzea badu, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak edo beste edozein administrazio publikok emana: 2 puntu.
- g) Kontsumobideren Arbitraje Sistemari atxikitako enpresa: 3 puntu.
- h) Eskabidearen datan, merkataritzako zonako zein gremioko elkarteren batekin duen lotura: 5 puntu.
- i) Establezimenduaren ardura duen enpresaburuak Eusko Jaurlaritzan merkataritza-arloko eskumena duen sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbarekin lankidetzan garatutako "Berriz Enpresa" enpresa-transmisioko programari heldu badio: 2 puntu.
- j) Merkataritza-establezimenduaren antzintasuna (EJZn dauden datuen arabera):
 - 10 urtetik gorako antzintasuna: 2 puntu.
 - 20 urtetik gorako antzintasuna: 3 puntu.
- k) Jendeari arreta euskaraz ematea, Bai Euskarari edo Bikain ziurtagirien bidez: 2 puntu.

14.- Itzuli beharreko laguntza al da?

Ez. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza da, baldin eta baldintzak betetzen badira eta inbertsioa diruz lagundutako establezimenduaren aktiboan badago:

- Bi urte, 1. eta 2. lineako inbertsioetarako.
- Urtebete, 3. lineako inbertsioetarako.

15.- Nire udalerrriak, probintziak beste laguntza bat deitu du. Eska dezaket diru-laguntza hau ematen badidate?

Bai. Bateragarria da administrazio publikoetatik eta/edo erakunde pribatuetatik datorren beste edozein diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek, betiere gainfinantzaketarik ez badago.

Eskatutako edo jasotako laguntzei buruzko informazioa eman behar da.

16.- Nola komunikatu naiteke laguntza hau kudeatzen duen administrazioarekin?

Eskaera egin ondorengo izapideak: jakinarazpenak, errekerimenduak, dokumentazioa aurkeztea eta prozeduran inplikaturako gainerako izapideak Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioaren bidez soilik egingo dira (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/>).

17.- Dokumentazio gehigarria aurkeztea

Erakunde eskatzaileak prozeduraren edozein unetan aurkeztu duen nahitaezko dokumentazioaz gain, beste agiri batzuk ere aurkez ditzake. Bai hala eskatu bazaio bai bere borondatez egin badu; hala nola aitortutako edozein datu argitzeko memoria bat. Kontuan hartu behar da behin eskabidea aurkeztuta dokumentazioa aurkeztuz gero, eskabidearen aurkezpen-data azken dokumentua aurkeztu eta zuzena den data izango dela.

18.- Gerta daiteke laguntzara bideratutako baliabide ekonomikoak agortu eta laguntzarik ez jasotzea?

Bai, posible da. Nolanahi ere, agindu arautzaileak zuzkidura handitzeko aukera jasotzen du, beharrezkoa izanez gero. Gehikuntza hori gertatuz gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

19.- Nola jakin dezaket laguntza onartu zaidala?

Laguntza emateko ebazpena banan-banan jakinaraziko da, "Nire karpeta"-ren bitartez.

20.- Zein da Administrazioak laguntza ebazteko daukan epea?

Merkataritza Zuzendaritzak eskaera osorik eta zuzen dokumentatzeko unearen ondoren ebartziko du, gehienez ere 6 hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe barruan ebazten ez bada, pertsona edo erakunde interesdunak ezetsizat jo ahal izango du bere uzia, hargatik eragotzi gabe organo eskudunak berriazko ebazpena emateko duen betebeharra.

